

# SANTA AGEDA 2024





# HISTORIA APURTXU BAT

Santa Agata jaia edo Dona Agata jaia legez izendatzen omen da. Baina jaiak berak argi utzi du herrian-herrian nortasun berezi bat hartzen duela. Eta Durangaldean Santa Ageda legez ezagutzen dugun jaia da otsailaren 5koa. Baina gutxik ezagutzen du egunaren jatorria. Merezi duelako ezagutza, goazen ikertzera.

Tradizioari jarraiki, bazen Agata izeneko emakume bat Catanian, Sizilian, jaio zena 235. urtean. Heriotzara eraman zuen gertaerak bere istorioa gaurdaino entzutea ekarri du. Quinciano gobernadorea zenak ezkontzeko proposamena egin zion, baina Agatak ez zuen gurari hori. Gobernadoreak, agintari postutik bere nahia bete ezinda, mendeku gisa kartzelatu zuen. Bularrak moztu eta hil arteko torturak sufritu izan zituen Agatak. Bera omentzeko, otsailaren 5-a aukeratu zuen katolizismoak.

Baina ospakizunak berak garai paganoetan du jatorria, Agataren inguruko festek zerikusirik handia dute inauteriek, inauste edo kimatze garaiko erritoekin. Santa Agata askotan bere gisa irudikatzen da: ahuntz edo katu itxurarekin. Ablitasen (Nafarroa), uste zuten Santa Agata bezperako gauean banatzen zirela hurrengo urtebeterako ekaitzak.

Ospakizunak indar handia du Euskal Herrian. Historikoki, mutilak ziren kalerik kale irtetzen zirenak herritarrei sosak eskatzeko. Gaur egun, koplak berriztu egin dira, katolizismoak eraginda zeuden koplak zaharrak berritu ditu jende ugari. Tartean, Maialen Lujanbio bertsolariak. 2016an, genero-indarkeriari buruzko koplak batzuk sortu zituen, "Beti-bezperako koplak" deituak.



## EGITARAUA



## ENTSEGUA

- Eguna: Otsailaren 1ean (osteguna).
- Ordua: arratsaldeko 16:30ean.
- Lekua: Ikastolako idazkaritza atarian (umeen kotxeak uzten ditugun lekuan).

## SANTA AGEDA EGITARAUA:

- Noiz: Otsailaren 4an (domeka).
- Batzeko ordua: Goizeko 10:30ean batu.
- Irteera ordua: 11:00etan Ikastolako jantokiko plazan.
- Amaiera: Santa Ana plazan 12:30ak inguruan. Bertan txokolatea eta salda banatuko da.

## EZ AHAZTU MAKILAK ETA BASERRITAR ERROPAK

- Kantuaren koplak ikastolan banatuko ditugu.
- Ikastolako koloretako zapiak egunean bertan banatuko ditugu nahi dutenentzako.





Zorion etxe hontako danoi  
agur egitera gatoz  
Aterik ate ohitura zaharrak  
Aurten barrizteko asmoz.  
Ez gagoz oso aberats diruz  
ezta bere oinetakoz  
baina ezarriz sano gabiltza  
ta kanta nahi dogu gogoz.


Santa Ageda bezpera dogu  
Euskal Herriko eguna  
etxe guztiak kantuz pozteko  
aukeratua doguna.  
Danon poztasuna izan dadila  
geure bideko laguna  
haren laguntzaz bete daigula  
egun hontako jarduna.

## KALEJIRA-rako

Ai gure Ageda, Ageda  
bihar da Santa Ageda  
bihar da Santa, Ageda eta  
gaur haren bezpera gaba

Aintzat hartua izan dedila  
Etxe honetako jentia  
Pobre ta umil dabizenentzat  
Ba dauke borondatia.





# IBILBIDEA

## Orduategia:

- 10:30ean Kurutzia Ikastola: Jantokiko plazan.
- 11:00etan irteera kurutzia Ikastolatik

## Abesteko gunak

- Joxe Miel Barandiaran: Zaharren egoitza aurrean
- Ezkurdi
- Plateruen Plaza
- Andra Mari Basilika
- Udaletxea
- Santa Ana plazan amaitu eta txokolate beroa hartu.

